## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

*Urola Erdiko Mankomunitateko estatutuen testuaren behin-betiko onespena.*

Urola Erdiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, 2011ko otsailaren 15ean egindako ohiko bilkuran besteak beste, Urola Erdiko Mankomunitateko Estatutuen aldaketa behin-betiko izaeraz onartu zuen. Mankomunitatea osatzen duten Udalen gehiengoetako Udalbatza-Plenoek aldeko ebazpena eman ondoren, Urola Erdiko Mankomunitateko Estatutuak, aldaketak kontutan izanda, argitaratzen dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez-gaindiko erakundeak arautzen dituen, apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren, 11. artikuluaren e) atalean xedaturikoa kontutan izanda.

Azkoitia, 2011ko maiatzaren 27a.—Mankomunitateko lehendakaria.

(124) (6421)

AURKIBIDEA

I. kapitulua: Xedapen orokorrak.

1. artikulua: Eraketa, izena eta egoitza.
2. artikulua: Izaera juridikoa eta ahalmenak.
3. artikulua: Antolamendua eta jarduteko modua.
4. artikulua: Mankomunitatearen indarraldia.

II. kapitulua: Xedea.

5. artikulua: Mankomunitatearen xedea.

III. kapitulua: Mankomunitateko gobernu-organoak.

6. artikulua: Egitura organikoa.

I. atala. Batzar nagusia.

7. artikulua: Batzar Nagusia.
8. artikulua: Batzar Nagusiko kideak izendatzea.
9. artikulua: Batzar Nagusia berritzea.
10. artikulua: Batzar Nagusiaren bilerak.
11. artikulua: Batzar Nagusiaren eskumenak.

II. atala. Lehendakaria, lehendakariordea, eta aholkularitza-organoak.

12. artikulua: Mankomunitateko lehendakaria.
13. artikulua: Lehendakariaren eginkizunak.
14. artikulua: Mankomunitateko lehendakariordea.

III. atala. Aholkularitza-organoak.

15. artikulua: Lan-mahaiak.

IV. kapitulua: Langileen araubidea.

16. artikulua: Mankomunitateko langileak.
17. artikulua: Idazkaritza.
18. artikulua: Kontu-hartzailetza.

V. kapitulua: Hondakinak kudeatzeko zerbitzua.

19. artikulua: Zerbitzuaren oinarri diren irizpideak.
20. artikulua: Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak.
21. artikulua: Kostuen eta tasen egozpena.

## MANCOMUNIDAD DEL UROLA MEDIO

*Aprobación definitiva del texto de los estatutos de la Mancomunidad de Urola.*

La Junta Rectora de la Mancomunidad de Urola Medio, en la sesión ordinaria celebrada el 15 de febrero de 2011, adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobación definitiva de la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad de Urola Medio. Una vez aprobada favorablemente por los Plenos de la mayoría de los Ayuntamientos que conforman la Mancomunidad, se publica el texto íntegro, con las modificaciones, de los Estatutos de la Mancomunidad de Urola Medio, tal y como dispone el apartado e) del artículo 11 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de Entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Azkoitia, a 27 de mayo de 2011.—El presidente de la Mancomunidad.

(124) (6421)

INDICE

Capítulo I: Disposiciones generales.

Artículo 1: Constitución, denominación y sede.
Artículo 2: Naturaleza jurídica y potestades.
Artículo 3: Organización y funcionamiento.
Artículo 4: Vigencia de la Mancomunidad.

Capítulo II: Objeto.

Artículo 5: Objeto de la Mancomunidad.

Capítulo III: Órganos de gobierno de la mancomunidad.

Artículo 6: Estructura orgánica.

Sección I. Asamblea general.

Artículo 7: Asamblea General.
Artículo 8: Designación de los miembros de la Asamblea General.
Artículo 9: Renovación de la Asamblea General.
Artículo 10: Sesiones de la Asamblea General.
Artículo 11: Facultades de la Asamblea General.

Sección II. Presidencia y vicepresidencia.

Artículo 12: Presidencia de la Mancomunidad.
Artículo 13: Facultades de la Presidencia.
Artículo 14: Vicepresidencia de la Mancomunidad.

Sección III. Órganos de carácter consultivo.

Artículo 15: Mesas de trabajo.

Capítulo IV: Régimen de personal.

Artículo 16: Personal al Servicio de la Mancomunidad.
Artículo 17: Secretaría.
Artículo 18: Intervención.

Capitulo V: Servicio de gestion de residuos.

Articulo 19: Principios inspiradores del servicio.
Articulo 20: Sistemas de gestión de residuos.
Articulo 21: Imputación de costes y tasas.

VI. kapitulua. Ekonomia-araubidea.

22. artikulua: Araudi aplikagarria.
23. artikulua: Ekonomia- eta finantza-baliabideak.
24. artikulua: Mankomunitatearen finantziazioa.
25. artikulua: Aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea.

VII. kapitulua: Mankomunitatea handitzea, bereiztea eta desegitea.

26. artikulua: Mankomunitatea handitzea.
27. artikulua: Mankomunitatea bereiztea.
28. artikulua: Mankomunitatea desegitea.
29. artikulua: Likidazio-prozedura.

VIII. kapitulua: Estatutuak aldatzea.

30. artikulua: Estatutuak aldatzea.

Lehen xedapen gehigarria.

Bigarren xedapen gehigarria.

Lehen xedapen iragankorra.

Azken xedapena.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Eraketa, izena eta egoitza.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidegoian, Beizama, Errezil eta Zestoa udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, bere eskumeneko zerbitzuak antolatu, kudeatu eta emateko. Estatutu hauen 5. artikuluan zerrendatu dira zerbitzu horiek.

Toki-entitateak Mancomunidad Urola Erdia / Urola Erdiko Mankomunitatea du izena. Azpeitiko Lapatx zabortegian du legezko helbidea, eta han egingo ditu bilerak. Halaber, bilerak egin ditzake mankomunitatea eratzen duten udaletxeetako edozeinetan ere.

*2. artikulua. Izaera juridikoa eta ahalmenak.*

1. Borondatezko Mankomunitate honek toki-entitatearen izaera juridikoa du; eta nortasun eta gaitasun juridikoa ditu bere berariazko helburuak betetzeko, indarrean diren xedapenetan eta Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, horiek zuzentzen baitute Mankomunitatea.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Arauek (mankomunitateak arautzen dituztenak) mankomunitateei ematen dizkieten ahalmen eta eskumen guztiak izango ditu Mankomunitate honek ere, bere eginkizunak egiteko; eta, bereziki, honako hauek:

a) Arautegi-ahalmena eta bere burua antolatzeko ahalmena.

b) Finantza-ahalmena, indarrean den legedian xedatutako baldintzetan.

c) Programatu edo planifikatzeko ahalmena, azpiegiturak lurraldean jartzeko proposamena barne, baina lehendik den hirigintza-plangintza errespetatuz.

Capítulo VI. Régimen económico.

Artículo 22: Normativa aplicable.
Artículo 23: Recursos económico-financieros.
Artículo 24: Financiación de la Mancomunidad.
Artículo 25: Régimen presupuestario y contable.

Capítulo VII: Ampliación, separación y disolución de la mancomunidad.

Artículo 26: Ampliación de la Mancomunidad.
Artículo 27: Separación de la Mancomunidad.
Artículo 28: Disolución de la Mancomunidad.
Artículo 29: Procedimiento de liquidación.

Capítulo VIII: Modificación de los estatutos.

Artículo 30: Modificación de los Estatutos.

Disposición adicional primera.

Disposicion adicional segunda.

Disposicion transitoria primera.

Disposición final.

MANCOMUNIDAD UROLA ERDIA

ESTATUTOS

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Constitución, denominación y sede.*

Los municipios de Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidegoian, Beizama, Errezil y Zestoa del Territorio Histórico de Gipuzkoa constituyen la Mancomunidad para la organización, gestión y prestación de los servicios de su competencia, que se indican en el artículo 5 de los presentes Estatutos.

La entidad local se denomina Mancomunidad Urola Erdia/ Urola Erdiko Mankomunitatea, teniendo su domicilio legal en el vertedero de Lapatx, de Azpeitia, donde celebrará sus Sesiones y Reuniones, pudiendo celebrar éstas asimismo en cualquiera de las Casas Consistoriales de los Ayuntamientos que conforman la Mancomunidad.

*Artículo 2. Naturaleza jurídica y potestades.*

1. Esta Mancomunidad voluntaria tiene la naturaleza jurídica de entidad local, con personalidad y capacidad jurídica para el cumplimiento de sus fines específicos, de acuerdo a lo establecido en las disposiciones vigentes y en los presentes Estatutos, por los que se rige.

2. La Mancomunidad dispondrá, para el ejercicio de sus funciones, de todas las potestades y prerrogativas que atribuyan a las Mancomunidades las Normas Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa que las regulan, y en particular:

a) La potestad reglamentaria y de auto-organización.

b) La potestad financiera, en los términos establecidos en la legislación vigente.

c) La potestad de programación o planificación, incluyendo la propuesta territorial de ubicación de infraestructuras, sin perjuicio de la planificación urbanística existente.

d) Ikertzeko ahalmena, baita ofizioz bere ondasunak mugatzekoa eta berreskuratzekoa ere.

e) Legezkotasun-presuntzioa edukitzeko eta bere ekintzak betetzeko ahalmena.

f) Nahitaez betearazteko ahalmena eta zigortzeko ahalmena.

g) Bere ekintzak eta akordioak ofizioz berrikusteko ahalmena.

h) Bere ondasunak eta eskubideak inork ez bahitzeko ahalmena, legeetan xedatutakoaren arabera.

i) Bere kredituetarako, Ogasun Publikoari jakinarazi zaizkion lehentasunak eta gainerako eskumenak, indarrean den legediaren arabera; eta toki-entitate izatetik eratorriko zaizkion gainerako eskumenak.

3. Lurralde-izaerako entitateek izapidetutako desjabetze-espedienteen onuradun izan daiteke Mankomunitatea.

Halakoetan, Mankomunitateak ordainduko du jabetza kendu zaienei ordaindu beharko zaizkien kalte-ordainen zenbatekoa.

*3. artikulua. Antolamendua eta jarduteko modua.*

Mankomunitatearen antolamendua, jarduteko modua eta araubide juridikoa Estatutu hauetan xedatutakoari egokituko zaio; eta, hala egin ezin denean, honako hauetan agindutakoari: 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaineko eremuko entitateak arautzen dituena, edo Foru Arau hori aldatzen duten arauak; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; eta toki-entitateei aplikagarri zaizkien gainerako lege-eta arau-xedapenak.

*4. artikulua. Mankomunitatearen indarraldia.*

Mankomunitatearen iraupen-epea edo indarraldia mugagabea izango da. Hala ere, deusezta daiteke Estatutu hauetan azaldutako kausak direla-eta, eta ezarritako prozedurari jarraikiz.

## II. KAPITULUA

## XEDEA

*5. artikulua. Mankomunitatearen xedea.*

Urola Erdiko Mankomunitatearen helburu nagusia da eratzen duten udalerrien tokiko garapena eta herritarren ongizatea lortzea. Horretarako, Mankomunitate honen jomuga dira udal-eskumeneko zerbitzuak eta programak eman eta kudeatzea, berariaz edo partekatuta. Hona hemen zerbitzuak eta programak:

— Etxeetako hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuak.

— Hiri-hondakinak gaika biltzeko eta garraiatzeko zerbitzuak, eta Garbiguneen kudeaketa.

— Hiri-hondakinak tratatu eta deuseztatzeko zerbitzuak, jarduera horien eta hondakinak uzteko edo isurtzeko tokien itxi osteko zaintza barne.

— Ingurumenari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak.

Bai eta beste edozein zerbitzu ere, nahiz eta artikulu honetan berariaz ez aipatu, udalaren eskumenekoa eta haren esku espresuki utzi dena, betiere 30. artikuluan Estatutu hauek aldatzeko ezarritako prozedura betetzen bada.

d) La potestad de investigación, deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.

e) La presunción de legitimidad y ejecutividad en sus actos.

f) La potestad de ejecución forzosa y sancionadora.

g) La potestad de revisión de oficio de sus actos y acuerdos.

h) La inembargabilidad de sus bienes y derechos en los términos previstos en las Leyes.

i) Las prelaciones y preferencias y demás prerrogativas reconocidas a la Hacienda Pública para los créditos de la misma conforme a la legislación vigente y demás facultades que se deriven de su carácter de entidad local.

3. La Mancomunidad podrá ser beneficiaria de expedientes de expropiación tramitados por Entidades de carácter territorial.

En estos casos, el importe de las indemnizaciones que haya que satisfacer a los expropiados será sufragado por la Mancomunidad.

*Artículo 3. Organización y funcionamiento.*

La organización, funcionamiento y régimen jurídico de la Mancomunidad se ajustará a lo previsto en los presentes Estatutos y, en su defecto, a lo regulado en la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, o normas que las modifiquen, en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y en las demás disposiciones legales y reglamentarias aplicables a las entidades locales.

*Artículo 4. Vigencia de la Mancomunidad.*

El plazo de duración o de vigencia de la Mancomunidad será indefinido, sin perjuicio de su disolución por las causas y procedimiento establecidos en los presentes Estatutos.

## CAPÍTULO II

## OBJETO

*Artículo 5. Objeto de la Mancomunidad.*

El objetivo último de la Mancomunidad Urola Erdia es el desarrollo local de los municipios que la integran y el bienestar de su ciudadanía. Para ello, los fines de esta Mancomunidad consisten en la prestación y gestión de servicios y programas (de forma exclusiva o compartida) atribuidos a la competencia municipal que se relacionan a continuación:

— Servicios de recogida domiciliaria de residuos urbanos.

— Servicios de recogidas selectivas y transporte de residuos urbanos y gestión de Garbigunes.

— Servicios de tratamiento y eliminación de residuos urbanos, incluida la vigilancia de estas actividades, y la de los lugares de depósito o vertido después de su cierre.

— Campañas informativas y de sensibilización medioambiental.

Cualquier otro servicio, no expresamente mencionado en el presente artículo, que sea de competencia municipal, y le sea delegado de forma expresa y de conformidad con el procedimiento establecido en el artículo 30 para la modificación de los presentes Estatutos.

## III. KAPITULUA

## MANKOMUNITATEKO GOBERNU-ORGANOAK

*6. artikulua. Egitura organikoa.*

Honako organo hauek osatzen dute Mankomunitatea:

— Batzar Nagusia.

— Lehendakaria eta lehendakariordea.

— Organo osagarriak.

### I. ATALA. Batzar nagusia

*7. artikulua. Batzar Nagusia.*

1. Gobernu-organo gorena da, eta ahalmena du akordio eta erabaki garrantzitsuenak hartzeko.

2. Batzar Nagusian ordezkaritza dute Mankomunitatea osatzen duten udalerriek.

3. Mankomunitateko udalen ordezkariek osatuko dute Batzar Nagusia, eta ordezkarietako bat lehendakari eta beste bat lehendakariorde izango dira. Mankomunitateko idazkaria ere Batzar Nagusiko kide izango da; idazkariak hitza izango du, baina botorik ez. Kasuan kasu egoki joko den teknikaria bileretara joan daiteke, eta hitza izango du, baina botorik ez.

4. Mankomunitatea osatuko duten toki-entitateek boto haztatua izango dute Batzar Nagusian, eta izango duten ordezkaritza, entitateei dagokien guztizko ehunekoaren barruan, Mankomunitatean elkartutako udalerrien guztizko biztanle-kopuruarekiko entitate bakoitzak izango duen biztanle-kopuruaren ehunekoaren arabera kalkulatuko da. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako biztanleriari buruzko azken datu ofizialak hartuko dira aintzat, eta kontuan izango da Estatutu hauetako 8.3 artikuluan xedatutako hasierako ordezkaritza.

*8. artikulua. Batzar Nagusiko kideak izendatzea.*

1. Mankomunitatea osatzen duten entitateen ordezkariak izango dira Batzar Nagusiko kide. Izendatutako kide bakoitzaren ordezko bat aukeratuko da, hurrengo paragrafoan araututako prozeduraren arabera, titularra ez dagoenean hura ordezka dezan. Ordezkoek soilik kide anitzeko organoko kideen eginkizun orokorrak egingo dituzte; ez dute egingo lehendakariaren eta lehendakariordearen berariazko funtziorik edo ordezkariari hel dakiokeen bestelako edozein eginkizun ere.

2. Udal bakoitzak hiru ordezkari izendatuko ditu, eta Batzar Nagusian ahalik eta aniztasun eta ordezkaritza handiena izango dela bermatuko du. Kasuan kasuko Udalbatzek hautatuko dituzte udal bakoitza ordezkatuko duten batzarkideak. Bozketa bakarra egingo da, eta bozketa horretan zinegotzi bakoitzak aurkeztutako hautagaietako bi bozka ditzake. Horren bitartez, erabaki-proposamen bat egingo da, eta horren arabera, boto gehien lortu dituzten hiru hautagaiak izendatuko dira. Erabaki-proposamena udal bakoitzeko erabakiak hartzeko araubidearen arabera onartu behar da. Ordezkarien ordezkoak hautatzeko ere prozedura berari jarraitu behar zaio.

3. Aurreko paragrafoan aipatutako prozedurari jarraikiz izendatuko diren hiru pertsonek ordezkatuko dute kasuan kasuko mankomunitateko udala. Hasiera batean, entitate bakoitzak honako boto-kopuru hau izango du:

## CAPÍTULO III

## ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LA MANCOMUNIDAD

*Artículo 6. Estructura orgánica.*

La Mancomunidad está compuesta por los siguientes órganos:

— Asamblea General.

— Presidencia y Vicepresidencia.

— Otros órganos complementarios.

### SECCIÓN I. Asamblea general

*Artículo 7. Asamblea General.*

1. Es el órgano supremo de gobierno y al mismo le corresponden las facultades de adopción de acuerdos y decisiones de mayor trascendencia.

2. En la Asamblea estarán representados los Ayuntamientos que integran la Mancomunidad.

3. La Asamblea General estará constituida por la representación de los ayuntamientos mancomunados, de la que forman parte las personas que ejerzan las funciones de Presidencia y Vicepresidencia. También formará parte de la Asamblea el Secretario o Secretaria de la Mancomunidad, con voz pero sin voto. El personal técnico que se estime conveniente podrá asistir a las sesiones, con voz pero sin voto.

4. La representación en la Asamblea, con voto ponderado, de los entes locales que formen parte del Mancomunidad se calculará, dentro del porcentaje total que corresponde a los mismos, conforme al número de habitantes de cada uno con respecto al número de habitantes total de los municipios mancomunados, que se calculará de acuerdo con las últimas cifras oficiales de población publicadas por el Instituto Nacional de Estadística, teniendo en cuenta la representación inicial prevista en el artículo 8.3 de los presentes Estatutos.

*Artículo 8.º Designación de los miembros de la Asamblea General.*

1. La Asamblea se integra por los representantes de los entes que formen parte de la Mancomunidad. Para cada miembro designado se elegirá, conforme al procedimiento regulado en el párrafo siguiente, un suplente que pudiera suplir la vacante de su titular. La sustitución sólo alcanzará a las funciones genéricas de miembros del órgano colegiado, no a las específicas de Presidente, Vicepresidente o cualquiera otra que pudiera concurrir en el sustituido.

2. Cada ayuntamiento designará tres representantes garantizando la máxima pluralidad de representación en la Asamblea. La elección de los asambleistas que representen a cada Ayuntamiento la realizarán los Plenos Municipales respectivos con un mismo procedimiento. A través de una primera votación única en la que cada concejal podrá votar a dos de los candidatos presentados quedará conformada una propuesta de acuerdo que promoverá el nombramiento de los tres candidatos mas votados. La propuesta de acuerdo deberá ser aprobada conforme al régimen de adopción de acuerdos propio de cada Ayuntamiento. Los suplentes de los representantes serán elegidos siguiendo el mismo procedimiento.

3. La representación de los ayuntamientos mancomunados recaerá en las tres personas designadas conforme al procedimiento del párrafo precedente, correspondiendo inicialmente a cada entidad un número de votos de acuerdo a la siguiente escala:

| *MANKOMUNITATEKO UDALAK* | *Entitatearen ordezkaritza (%)* | *Ordezkariei emandako botoak* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *1.a* | *2.a* | *3.a* |
| Aizarnazabalgo Udala (669) | 2,15 | 0,73 | 0,71 | 0,71 |
| Azkoitiko Udala (11.266) | 36,22 | 12,08 | 12,07 | 12,07 |
| Azpeitiko Udala (14.375) | 46,21 | 15,41 | 15,40 | 15,40 |
| Beizamako Udala (180) | 0,58 | 0,20 | 0,19 | 0,19 |
| Bidegoiango Udala (510) | 1,64 | 0,56 | 0,54 | 0,54 |
| Errezilgo Udala (628) | 2,02 | 0,68 | 0,67 | 0,67 |
| Zestoako Udala (3.479) | 11,18 | 3,74 | 3,72 | 3,72 |
| GUZTIRA (31.107) | 100 | | | |

| *AYUNTAMIENTOS MANCOMUNADOS* | *Representación de la entidad (%)* | *Votos atribuidos a los representantes* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *nº 1* | *nº 2* | *nº 3* |
| Ayuntamiento de Aizarnazabal (669) | 2,15 | 0,73 | 0,71 | 0,71 |
| Ayuntamiento de Azkoitia (11.266) | 36,22 | 12,08 | 12,07 | 12,07 |
| Ayuntamiento de Azpeitia (14.375) | 46,21 | 15,41 | 15,40 | 15,40 |
| Ayuntamiento de Beizama (180) | 0,58 | 0,20 | 0,19 | 0,19 |
| Ayuntamiento de Bidegoian (510) | 1,64 | 0,56 | 0,54 | 0,54 |
| Ayuntamiento de Errezil (628) | 2,02 | 0,68 | 0,67 | 0,67 |
| Ayuntamiento de Zestoa (3.479) | 11,18 | 3,74 | 3,72 | 3,72 |
| TOTAL (31.107) | 100 | | | |

4. Mankomunitateko udalerrien hiru ordezkarietako bakoitzari dagokio ordezkatzen duen udalerriari emango zaion boto haztatuaren herenaren baliokide den boto-ehunekoa. Udal jakin bati esleitutako boto haztatuaren ehunekoaren herena ez bada zenbaki osoa, zenbaki osoa lehenengo hamartarrarekin hartuko da. Hortaz, ordezkari bakoitzaren boto haztatuak hamartar bakarra izango du. Ordezkariei esleitutako botoaren ehunekoaren hamartarraren eta Mankomunitateko udalerriari dagokion ehunekoaren hamartarraren arteko aldea Mankomunitateko udalerriak erabakiko duen ordezkarien ehunekoari esleituko zaio.

5. Tokian tokiko udalbatzak berritzen badira, eta horren ondorioz, Mankomunitatearen baitako organoak osatu behar badira, udalerri bakoitzaren ordezkaritza-ehunekoak eguneratuko dira. Ehuneko berri horiek indarrean izango dira, harik eta berriz eguneratzeko ordua iritsi arte. Ehunekoek bi hamartar izango dituzte. Eguneraketa Mankomunitateko udal guztiei jakinaraziko zaie.

6. Toki-entitateen ordezkariek kargua uzten dutenean agintaldia amaitu delako, kargua mantenduko dute Mankomunitatean, Mankomunitateko udalek ordezkari berriak izendatu arte.

*9. artikulua. Batzar Nagusia berritzea.*

Tokiko hauteskundeak egin eta gero Mankomunitateko udalak eratzen direnean, hogeita hamar eguneko epea izango da Mankomunitateko Batzar Nagusirako ordezkariak izendatzeko.

4. A cada uno de los tres representantes de los municipios mancomunados le corresponderá un porcentaje de voto equivalente a la tercera parte del voto ponderado que se atribuya al municipio al que representa. Cuando el resultado de dividir entre tres el porcentaje de voto ponderado atribuido a un determinado ayuntamiento no sea un número entero, se tomará el número entero y el primer decimal, por lo que el voto ponderado de cada representante tendrá finalmente un único decimal. La diferencia decimal de porcentaje de voto existente entre la así atribuida a los representantes y la correspondiente al municipio mancomunado, se atribuirá a aquel de los representantes que así lo hubiera decidido el ayuntamiento mancomunado.

5. Cada vez que deban de constituirse los órganos de los ayuntamientos mancomunados como consecuencia de la renovación de las Corporaciones Locales, se actualizará el porcentaje de representación asignado a cada municipio, sin que sea requerida una modificación estatutaria, rigiendo los nuevos porcentajes hasta que se actualicen nuevamente. Dicho porcentaje tendrá dos decimales. La actualización se notificará a todos los Ayuntamientos mancomunados.

6. Cuando los representantes de las entidades locales cesen en sus cargos debido al término de sus mandatos, éstos mantendrán su puesto en la Mancomunidad hasta que los ayuntamientos mancomunados procedan a la designación de sus nuevos representantes.

*Artículo 9.º Renovación de la Asamblea General.*

Una vez constituidos los ayuntamientos mancomunados por la celebración de las elecciones locales, aquéllos deberán proceder en el plazo de treinta días a la designación de sus representantes en la Asamblea General de la Mancomunidad.

Ordezkari berriak izendatu arte, Batzar Nagusiko kide izaten jarraituko dute Mankomunitatea osatzen duten udaletako kargua utzi duten ordezkariek.

*10. artikulua. Batzar Nagusiaren bilerak.*

1. Batzar Nagusia bilduko da aldez aurretik bilerarako deia eginda. Lehendakariak bilerarako dei arrunta egingo du hilean bi aldiz. Deialdia hiru egun baliodun edo gehiagoko aurrerapenarekin egingo da.

2. Salbuespenez, lehendakariak hainbat deialdi egin ditzake –egoki joko dituen beste– Batzar Nagusiaren bileretarako, eta hiru egun baliodun eko aurrerapenez jakinarazi beharko ditu.

Lehendakariak Batzar Nagusia biltzeko deia egingo du, orobat, Mankomunitateko bi udalek eskatzen dutenean, aurrez kasuan kasuko gobernu-organoek onartuta. Hala egiten duenean, gai-zerrendan sartu behar ditu bilera egiteko eskaera egin duten Mankomunitateko udalek eskatutako gaiak. Kasu horietan, lehendakariak erabaki dezake bilera hurrengo ohiko batzarraren egunera atzeratu ala ez. Atzeratuz gero, bilera horretako gai-zerrendan sartu behar ditu Mankomunitateko bi udalek eskatutako gaiak.

3. Halaber, Batzar Nagusiaren ezohiko deialdia egin dezakete kideen legezko kopuruaren laurdenak, baina kide bakoitzak ezingo du urtean hiru deialdi baino gehiago eskatu. Kasu horretan, Batzar Nagusiaren ezohiko bilera hamabost egun baliodun eko epean egin beharko da eskaera aurkezten denetik, eta gaia ezingo da sartu Batzar Nagusiaren ohiko bileran edo beste hainbat gai jorratuko diren beste ezohiko bilera batean, baldin eta deialdia egiten duten kideek berariaz onartzen ez badute.

Batzar Nagusiaren lehendakariak, adierazitako epean, aipatutako ordezkari-kopuruak eskatutako ezohiko bilera egiten ez badu, bilera automatikoki epe hori bukatu eta hamargarren egun baliodunean egingo da, 12:00etan, eta Idazkaritzaren titularrak kide guztiei jakinaraziko die aurretik aipatutako epea bukatu eta biharamunean. Lehendakaria edo hura legez ordeztu behar duena ez badaude, Batzarra balio osoz eratuko da, betiere hori eratzeko Estatutuetan adierazten den beharrezko quoruma baldin badago. Kasu horretan, bertaratutakoen artean adinez nagusiena dena buru izango da.

4. Batzar Nagusiko lehendakariak premiazko aparteko bileretarako deia egin dezake, gaiaren larritasunak hala eskatzen duenean.

Kasu horretan, gai-zerrendaren lehenengo puntua izango da Batzar Nagusiak bilera premiazkotzat jotzeko hartu duen erabakia. Organo horrek premiazkotasunik ez zegoela jotzen badu, bileraren akta egingo da segidan, eta ezingo da erabakirik hartu.

Halaber, bilera egin ahalko da Batzar Nagusiko kide guztiak bertan badaude eta guztien adostasunez hala erabakitzen bada. Azaldu bezala egiten bada, bilera aurrez premiazkotzat jo beharko da, eta bozkatzeko eskubidea duten kideen gehiengo osoak berretsi beharko du.

5. Nolanahi ere, deialdian honako hauek adierazi beharko dira: Bileraren eguna, tokia, ordua eta eztabaidatuko diren gai guztiak. Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan berariaz eta idatziz jasota ez dauden gaiei buruz, salbu premiazko kasuetan. Hala ere, premiazkoak direla jo beharko ditu organoak, aurrez, eta kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak alde bozkatu beharko du.

Mientras tanto, y hasta que no se designen los nuevos representantes, continuarán como miembros de la Asamblea General los representantes cesantes de los ayuntamientos que forman la Mancomunidad.

*Artículo 10.º Sesiones de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General se reunirá previa convocatoria. El Presidente deberá convocar la asamblea con carácter ordinario bimensualmente. La convocatoria se efectuará con una antelación no inferior a tres días hábiles.

2. De forma extraordinaria, la persona que ejerza la Presidencia podrá convocar cuantas sesiones de la Asamblea General estime oportuno, notificándolo con una antelación de tres días hábiles.

La persona que ejerza la Presidencia, también convocará la Asamblea, cuando lo soliciten, previa aprobación de los órganos de gobierno respectivos, dos de los ayuntamientos mancomunados, debiendo en este caso incluir en el orden del día aquellos puntos que le fueren solicitados por los ayuntamientos mancomunados que soliciten la celebración de la asamblea. La Presidencia podrá decidir en este caso diferir la celebración de la Asamblea hasta que proceda la siguiente Asamblea Ordinaria, debiendo incluir en el orden del día de esta los puntos solicitados por los dos ayuntamientos mancomunados.

3. Podrán, asimismo, instar la celebración de Asamblea General con carácter extraordinario, la cuarta parte del número legal de miembros de la misma, sin que ninguno de aquéllos pueda solicitar más de tres anualmente. En este caso la celebración de la Asamblea no podrá demorarse por más de quince días hábiles desde que fuera solicitada, no pudiendo incorporarse el asunto al orden del día de una Asamblea ordinaria o de otra extraordinaria con más asuntos, si no lo autorizan expresamente los solicitantes de la convocatoria.

Si el Presidente no convocase la Asamblea extraordinaria solicitada por el número de representantes indicado dentro del plazo señalado, quedará automáticamente convocado para el décimo día hábil siguiente al de finalización de dicho plazo a las doce horas, lo que será notificado por la persona titular de la Secretaría a todos los miembros de la misma al día siguiente de la finalización del plazo citado anteriormente. En ausencia del Presidente o de quien legalmente haya de sustituirle la Asamblea quedará válidamente constituida siempre que concurra el quórum requerido en los presente Estatutos, en cuyo caso será presidida por el representante de mayor edad entre los presentes.

4. Se convocarán sesiones extraordinarias de carácter urgente por quien ejerza la Presidencia de la Asamblea General cuando la urgencia del asunto lo exija.

En este caso deberá incluirse como primer asunto del Orden del día el pronunciamiento de la Asamblea General sobre la urgencia. Si ésta no fuera apreciada por dicho órgano se levantará acto seguido la sesión, sin que pueda adoptarse acuerdo alguno.

Asimismo, se podrá celebrar sesión cuando estando presentes todos los miembros de la Asamblea así se decida por unanimidad de los mismos. En este caso, será necesaria la previa declaración de urgencia, ratificada por la mayoría absoluta de los miembros con derecho a voto.

5. En todo caso, el anuncio de la convocatoria deberá indicar la fecha de la reunión, el lugar, hora y todos los asuntos que vayan a tratarse. No podrán adoptarse acuerdos sobre asuntos que no aparezcan expresamente consignados en el orden del día, salvo supuestos de urgencia apreciada previamente por el órgano con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros.

6. Batzar Nagusiaren bilerak baliozko izan daitezen, lehenengo deialdian eskatuko da batzarkideen erdia gehi bat egotea (beren botoen erdia gehi bat ere izan beharko da), bai eta Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere. Bigarren deialdian botoen erdia gehi bat eskatuko da, edozein delarik ere batzarkide-kopurua, betiere hiru kide edo gehiago baldin badatoz. Gainera, lehendakariak edo lehendakariordeak eta idazkariak edo bere legezko ordezkoak bileran izan behar du nahitaez.

7. Batzar Nagusiak egindako bilerak eta hartutako erabakiak idazkariak idatzitako aktan jasoko dira. Aktak, onartu eta gero, sinatu egingo dituzte lehendakariak eta idazkariak, eta dagokien Akten Liburura kopiatuko dira.

*11. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumenak.*

1. Batzar Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Mankomunitateko udalerri berriak onartzeko eskumena; gainera, Mankomunitateko entitate bakoitzaren boto-kopurua ezarriko du, eta haiek bereizi ere egin ahalko ditu.

b) Estatutuak eta egoitza soziala aldatzeko eskumena.

c) Mankomunitatea desegiteko eskumena eta haren ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzeko proposamena.

d) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzeko eskumena.

e) Mankomunitateko arau gisa ezarriko diren barne-araudia edo erregelamendua onartzeko eskumena; eta sor daitezkeen batzordeen eraketa, osaketa eta barne-erregimeneko araudia onartzeko eskumena, hala dagokionean.

f) Aurrekontua, aurrekontua erabiltzeko oinarriak eta Kontu Orokorra onartzeko eskumena; bai eta Mankomunitateak ondarea besterentzeko eta eskuratzeko egingo dituen jarduerak onartzeko ere.

g) Mankomunitateko udalen ekarpen-erregimena zehaztuko duten arauak onartzeko eskumena. Dena den, Mankomunitateko udalen ekarpenek Batzar Nagusian duten ordezkaritza-ehunekoaren proportzional izan behar dute.

h) Kreditu-eragiketak kontratatzeko eskumena.

i) Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea izendatu eta kargutik kentzeko eskumena.

j) Beste administrazio batzuekin egindako lankidetza-hitzarmenak edo akordioak onartzeko eskumena.

k) Mankomunitateak era eraginkorrean funtzionatzeko beharrezko joko diren batzordeak sortzeko eskumena.

l) Langileen eta lanpostuen zerrendak onartzeko eskumena.

m) Obrak, zerbitzuak, hornidurak eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak kontratatzeko eskumena, bai eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egiteko eskumena ere, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.

n) Likidazioaren kontua onartzeko eskumena, Mankomunitateko kide bat Mankomunitatetik irteten bada.

o) Mankomunitatearen interesak defendatzeko ekintza judizial eta administratibo egokiak gauzatzea erabakitzeko eskumena.

p) Legeek Udalbatzei berariaz ematen dizkieten gainerako eskumenak.

6. Para la válida celebración de las sesiones de la Asamblea se exigirá, en primera convocatoria, la mitad más uno de los miembros de la Asamblea que además supongan la mitad más de uno de sus votos, así como la mitad más uno de los municipios representados en la Mancomunidad y en segunda convocatoria la mitad más uno de sus votos, cualquiera que sea el número de miembros siempre que al menos asistan tres miembros. Además será preceptiva la asistencia del Presidente o Vicepresidente y del Secretario/a o sustituto legal.

7. Las sesiones y acuerdos adoptados por la Asamblea serán recogidos en un acta redactada por el Secretario o Secretaria. Las actas una vez aprobadas serán firmadas por quien ejerza la Presidencia y el Secretario o Secretaria y se transcribirán al Libro de Actas correspondiente.

*Artículo 11.º Facultades de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General dispondrá de las siguientes facultades:

a) Admisión de los nuevos municipios mancomunados, fijando el número de votos de cada ente mancomunado, así como separación de los mismos.

b) Modificación de los Estatutos y cambio de sede social.

c) Disolución de la Mancomunidad y propuesta de liquidación de sus bienes, derechos y débitos.

d) La aprobación de las formas de gestión de los servicios.

e) Aprobación de los reglamentos o normativa interna que se establezcan como norma de la Mancomunidad, y en su caso la constitución, composición y el reglamento de régimen interno de las comisiones que se puedan constituir.

f) Aprobación del Presupuesto, sus bases de ejecución y la Cuenta General, así como las actividades de enajenación y adquisición de patrimonio por parte de la mancomunidad.

g) Aprobación de las reglas que determinen el régimen de aportaciones de los ayuntamientos mancomunados. En cualquier caso, las aportaciones de los ayuntamientos mancomunados deberán ser proporcionales al porcentaje de su representación en la asamblea.

h) Contratación de las operaciones de crédito.

i) Nombramiento y cese de las personas que ejerzan la Presidencia y Vicepresidencia de la Mancomunidad.

j) Aprobación de acuerdos o convenios de colaboración con otras Administraciones.

k) Creación de las comisiones que estime necesarias para el eficaz funcionamiento de la Mancomunidad.

l) Aprobación de la plantilla y de la relación de puestos de trabajo.

m) Contratación de obras, servicios, suministros, y todos aquellos regulados por la legislación sobre contratos del sector público, así como la realización de contratos privados para la mejor gestión de la actividad, de conformidad con lo establecido en la legislación aplicable.

n) Aprobación de la cuenta de liquidación en caso de separación de uno los miembros de la Mancomunidad.

o) Acordar el ejercicio las acciones judiciales y administrativas pertinentes para la defensa de los intereses de la Mancomunidad.

p) Las demás que expresamente le confieren las Leyes al Pleno de los Ayuntamientos.

2. Batzar Nagusiaren erabakiak, oro har, bertan dauden kideen botoen gehiengo soilez hartuko dira, a) puntuaren 2. atala, b) egoitza sozialaren aldaketa, c), d), e), f), g), h), i), j), m) eta n) puntuei buruzko erabakiak hartzeko izan ezik. Erabaki horiek onartzeko, bozkatzeko eskubidea duten kideen botoen gehiengo osoa beharko da. Kasu horietan, gainera, Mankomunitateko udalerrien gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da. Horretarako, joko da Mankomunitateko udalerri bakoitzak boto bat duela, eta botoa udalerri bakoitzaren hiru ordezkarien gehiengoak bozkatu duenaren arabera kontatuko da. Mankomunitateko udalerri baten ordezkarien botoak kontatu eta berdinketa gertatzen bada, udalaren botoa abstentziotzat joko da.

3. Dena dela, Mankomunitateko Estatutuak aldatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Mankomunitateko Batzar Nagusiko kide guztien aldeko bozka.

II. ATALA. Mankomunitatearen lehendakaria eta lehendakariordea

*12. artikulua. Mankomunitateko lehendakaria.*

1. Batzar Nagusian ordezkaturik dauden eta Mankomunitateko kide diren erakundeetako ordezkarien artetik Mankomunitateko lehendakaria aukeratuko da. Mankomunitateko lehendakaria Batzar Nagusiko lehendakari izango da baita ere.

2. Lehendakaria hautatzeko, nahitaez, 11.2. artikuluan zehaztutako gehiengoa behar da.

3. Aurreko paragrafoan adierazitako gehiengoa lortzen ez bada, bigarren bozketa bat egingo da, baina beharrezkoa izango da gehiengo hori lortzea.

4. Bigarren bozketa egin ondoren lehendakaria aukeratzen ez bada, Mankomunitateko kide diren erakundeetako ordezkariek kargua utziko dute eta Mankomunitateko udalek hilabeteko epean ordezkari berriak aukeratu beharko dituzte. Ondoren, Mankomunitateko lehendakaria aukeratuko da bertan dauden kideen botoen gehiengo soilez.

5. Lehendakari kargua uzteko, hura izendatzeko beharrezkoa den gehiengoa behar da.

6. Udal-hauteskundeen ondotik batzar bat egingo da. Lehendabiziko ohiko batzar horretan, Mankomunitatea osatzen duten erakundeek izendatutako ordezkari berriek hartuko dute parte, eta ordezkari horien artetik bat lehendakari berri izendatuko dute. Hortaz, ohiko lehenengo batzar hori egiten den unean, aurreko lehendakariak kargua utziko du.

*13. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.*

Lehendakariaren eginkizun dira:

1. Mankomunitatearen barne- zein kanpo-ordezkari nagusi izatea.

2. Batzar Nagusietarako deialdia egitea, Batzar Nagusiko lehendakari izatea, Batzar Nagusia bertan behera uztea, amaitutzat ematea, Batzar Nagusian gertatzen diren eztabaidak zuzentzea, eta, kalitateko bere botoaren bidez, berdinketak haustea.

3. Batzar Nagusian hartutako erabakiak argitaratzea eta betearaztea.

4. Mankomunitatearen interesak defendatzeko gauzatu behar diren ekintza judizial eta administratibo egokiak gauza daitezela erabakitzea bere eskumeneko gaietan eta, premia handia bada, Batzarrak eskumena duen gaietan.

5. Langileak kontratatzeko oinarriak eta langileen izendapenak onartzea.

2. Los acuerdos de la Asamblea se adoptarán, por regla general, por mayoría simple de los votos de los miembros presentes, excepto en los acuerdos relativos a los puntos a), 2.º apartado del punto b) -cambio de sede social-, c), d), e), f), g), h), i), j), m) y n) para cuya aprobación se requerirá mayoría absoluta de los votos de los miembros con derecho a voto. En estos supuestos, se requerirá además el voto favorable de la mayoría absoluta de los municipios mancomunados, considerándose a estos efectos que cada municipio mancomunado dispone de un voto, computándose éste en función del que hayan ejercido la mayoría de sus tres representantes. Si el cómputo de votos de los representantes de un municipio mancomunado presentara un empate, se estimará voto del ayuntamiento como abstención.

3. En todo caso, la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad requerirá el voto favorable de la totalidad de los miembros de la Asamblea General de la Mancomunidad.

SECCIÓN II. Presidencia y vicepresidencia de la mancomunidad

*Artículo 12.º Presidencia de la Mancomunidad.*

1. La persona que ejerza la Presidencia de la Mancomunidad, que la ejercerá también respecto de la Asamblea General, será elegida de entre los representantes de las entidades mancomunadas representadas en la Asamblea General.

2. Para la elección de la persona que ejerza la Presidencia se exigirá preceptivamente la mayoría determinada en el art. 11.2.

3. Caso de no lograr la mayoría expresada en el párrafo anterior, tendrá lugar una segunda votación, en la cual será necesario obtener la misma mayoría requerida en el apartado anterior.

4. Si tras la segunda votación no fuera posible proceder a la elección de la persona que ejerza la Presidencia, los representantes de las entidades mancomunadas cesarán en sus cargos, debiendo los ayuntamientos mancomunados proceder a una nueva designación de representantes en el plazo máximo de un mes, tras lo cual la Presidencia de la Mancomunidad podrá ser elegida por la mayoría simple de los votos de los miembros presentes.

5. Para el cese en el ejercicio de la Presidencia se requerirá la mayoría preceptiva para su nombramiento.

6. En todo caso, la Presidencia cesará en el momento en que se celebre la primera asamblea ordinaria tras las elecciones municipales en la que participen los nuevos representantes designados por los entes mancomunados y se designe la nueva Presidencia entre los representantes.

*Artículo 13.º Facultades de la Presidencia.*

Son facultades de la Presidencia:

1. Ejercer la máxima representación, tanto interna como externa, de la Mancomunidad.

2. Convocar, presidir, suspender y levantar, así como dirigir las deliberaciones y dirimir los empates con su voto de calidad de las sesiones de la Asamblea General.

3. Publicar y ejecutar las decisiones adoptadas en la Asamblea General.

4. Acordar el ejercicio de las acciones judiciales y administrativas pertinentes para la defensa de los intereses de la Mancomunidad en materias de su competencia, y en caso de urgencia, en materias competencia de la Asamblea.

5. Aprobación de las bases de contratación de personal y el nombramiento de personal.

*14. artikulua. Mankomunitateko lehendakariordea.*

1. Lehendakariorde lanetan arituko da 11.2 artikuluan zehaztutako gehiengoaren bidez aukeratu den pertsona.

2. Lehendakariordea lehendakariaren ordez arituko da kargu hori hutsik badago, lehendakaria kanpoan bada, hura gaixorik badago, eta lehendakariak bere jarduna haren esku uzten duen guztietan.

3. Lehendakariordea izendatzeko behar den gehiengo berbera behar da lehendakariordearen kargu-uztea onartzeko. Gainera, haren ordezkoa erabaki hori hartzen den batzar berean izendatu beharra dago.

4. Udal hauteskundeen ondotik batzar bat egingo da. Lehendabiziko ohiko batzar horretan, Mankomunitatea osatzen duten erakundeek izendatutako ordezkari berriek hartuko dute parte, eta ordezkari horien artetik bat lehendakariorde izendatuko dute. Hortaz, ohiko lehenengo batzar hori egiten den unean utziko du kargua aurreko lehendakariordeak.

5. Mankomunitateko kide diren udalerri bereko bi ordezkari ezin daitezke izan lehendakari eta lehendakariorde. Bi kargu horiek aldi berean hutsik badaude, lehendakari lanetan arituko da, behin-behinekoz, Batzar Nagusiko kiderik zaharrena; eta lehendakariorde lanetan, berriz, kiderik zaharrenetan bigarrena, betiere, goian aipatutako salbuespena bazter utzi gabe.

III. ATALA. Aholkularitza-organoak

*15. artikulua. Lan-mahaiak.*

Mankomunitatearen zerbitzuak egoki kudeatzeko beharrezko deritzon lan-mahai guztiak sor ditzake Batzarrak.

Mahai bat eratzeko erabakian zehaztuko dira, batetik, mahaiaren osaera politikoa eta teknikoa –Mankomunitateko nahiz Mankomunitatea osatzen duten udaletako langileriak parte hartuko duen ala ez–, eta, bestetik, mahaiaren kargu utzitako ardurak.

Mahai horietako bakoitzak egokitu zaion zerbitzua planifikatu, koordinatu, organo eskudunei proposamenak aurkeztu, eta erabakien jarraipena egin beharko du.

Mahaiek, halaber, gaian espezializatuta dauden erakundeei aholkularitza-lanak egitea eska diezaiekete. Horrela, egiten dituzten bileretara ager daitezela edo, bestela ere, mahaiak egoki deritzon txostenak aurkez ditzatela eska diezaiekete mahaiek aholkularitza-erakundeei.

IV. KAPITULUA

LANGILEEN ARAUBIDEA

*16. artikulua. Mankomunitateko langileak.*

Mankomunitateko langileek enpleguari eta funtzio publikoari buruz indarrean diren arauak bete beharko dituzte.

*17. artikulua. Idazkaritza.*

Idazkari-kontu-hartzaile lanpostua edo idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak sor daitezke. Figura horrek edo horiek nahitaezko funtzio hauek izango dituzte: Fede publikoa ematea; nahitaezko aholkularitza legala eskaintzea; eta Mankomunitateko aurrekontuak eta finantza-kudeaketa nahiz kudeaketa ekonomikoa barrutik kontrolatzea eta fiskalizatzea.

*Artículo 14.º Vicepresidencia de la Mancomunidad.*

1. Ejercerá las funciones de Vicepresidencia la persona designada con la mayoría que determina preceptivamente el art. 11.2.

2. Quien ejerza las funciones de Vicepresidencia sustituirá a la persona que ejerza la Presidencia en caso de vacante, ausencia o enfermedad, y en todas las ocasiones en que ésta última delegue en aquélla su actividad.

3. El cese en el ejercicio de la Vicepresidencia deberá aprobarse por la mayoría requerida para su nombramiento, designándose en la misma sesión su sustituto.

4. La Vicepresidencia cesará en el momento en que se celebre la primera asamblea ordinaria tras las elecciones municipales en la que participen los nuevos representantes designados por los entes mancomunados, en la que se procederá a la elección de una nueva Vicepresidencia entre los representantes.

5. Los cargos de Presidente y Vicepresidente no podrán recaer en representantes de un mismo municipio mancomunado. Si estuvieran vacantes simultáneamente ambos cargos, ejercerá de Presidente interinamente el miembro de la Asamblea General de más edad y de Vicepresidente el siguiente en edad manteniendo la excepción anterior.

SECCIÓN III. Órganos de carácter consultivo

*Artículo 15. Mesas de trabajo.*

La Asamblea podrá crear tantas mesas de trabajo cuantas estime necesarias para la adecuada gestión de los diversos servicios de la Mancomunidad.

El Acuerdo de creación de una Mesa contendrá especificaciones sobre su composición, principalmente político-técnica e integrante de personal de la propia Mancomunidad y los ayuntamientos mancomunados, y las responsabilidades encomendadas.

Estas Mesas se encargarán fundamentalmente de la planificación, coordinación, elevación de propuestas a los órganos competentes, y seguimiento de acuerdos de aquellos servicios cuyo estudio se les atribuya.

Las Mesas podrán solicitar a asociaciones competentes en la materia correspondiente el ejercicio de labores de asesoramiento, bien con la presencia en sus sesiones o a través de la realización de cuantos informes considere precisos la Mesa.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN DE PERSONAL

*Artículo 16. Personal al servicio de la Mancomunidad.*

Al personal al servicio de la Mancomunidad le será de aplicación la normativa sobre empleo y función pública vigente.

*Artículo 17. Secretaría.*

La Asamblea General podrá asignar las funciones preceptivas de Fe pública y Asesoramiento legal preceptivo, y control y fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria de la Mancomunidad a un solo puesto de Secretaría-Intervención, o a dos puestos, de Secretaría e Intervención respectivamente.

Estatuko gaikuntza duen funtzionario bat izango da Mankomunitateko idazkari, eta ondoko hauek izango dira haren eginkizunak:

a) Batzar Nagusiaren bileretara joatea. Hitza izango du, baina botorik ez.

b) Lehendakariaren aginduz, Batzarraren bileretarako deia egitea eta Batzarreko kideei deia helaraztea.

c) Batzarreko kideen komunikazio-egintzak jasotzea eta, baita egintza horien ondorioz ezagutu behar dituen jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak eta bestelako idatziak ere.

d) Eginbideak izapidetzeko prestatzea, eta bileretako aktak idaztea eta baimentzea.

e) Onartutako erabakien, kontsulten eta xedapenen egiaztagiriak egitea.

f) Fede publikoarekin eta nahitaezko aholkularitza legalarekin lotura duten gainerako funtzio guztiak, estatu-mailako gaikuntza duten toki-administrazioetako funtzionarioei dagozkienak.

g) Mankomunitateko gobernu-organoek haren esku uzten dituzten beste eginbehar batzuk.

Kargu hau ezin bada bete aurreko paragrafoan aurreikusi bezala, funtzio publikoaren arautegian zehaztutako moduetako baten alde egin beharra dago.

*18. artikulua. Kontu-hartzailetza.*

Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean dihardutenetatik Estatuko gaikuntza duen funtzionario bat izango da kontu-hartzaile eta diruzain; kargu horien berezko eskumenak izango ditu berak.

Kontu-hartzaile eta diruzaina Mankomunitateko kontabilitate-, diruzaintza- eta bilketa-sailetako buru izango da. Horrez gain, ekonomiaren, finantzaren eta aurrekontuen kudeaketa kontrolatu eta fiskalizatu behar du.

Kargu hori ezin bada bete aurreko paragrafoan aurreikusi bezala, funtzio publikoaren arautegian zehaztutako moduetako baten alde egin beharko da.

Kontu-hartzaileak eginiko zorpekoen ziurtagiria baliagarri izango da Udalaz Gaindiko Erakundeei buruzko 6/2007 Foru Arauko 15.2 artikuluko 2. lerrokadan ezarritako baldintza betetzeko.

## V. KAPITULUA

## HONDAKINAK KUDEATZEKO ZERBITZUA

*19. artikulua. Zerbitzuaren oinarri diren irizpideak.*

Hondakinak kudeatzeko zerbitzua Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko azaroaren 19an emandako 2008/98/EB zuzentarauak arautuko du.

Zuzentarauaren 14. artikuluak «kutsatzen duenak ordaintzen du» deritzon printzipioa arautzen du, eta erabateko zorroztasunez aplikatuko da. Hori dela eta, Mankomunitateak diskriminazio positiboko irizpideak aplikatuko dizkie birziklatzeko eta berreskuratzeko ahalegina egiten duten erabiltzaileei, eta zehatu egingo ditu gainerako zati gehiago sortzen duten erabiltzaileak.

La Secretaría de la Mancomunidad corresponderá a un funcionario o funcionaria con habilitación de carácter estatal, con las siguientes facultades:

a) Asistir a las reuniones de la Asamblea General con voz pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones de la Asamblea por orden de la Presidencia, así como las citaciones a los miembros del mismo.

c) Recibir los actos de comunicación de los miembros con la Asamblea y, por tanto, las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquiera otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

d) Preparar el despacho de los asuntos, redactar y autorizar las actas de las sesiones.

e) Expedir certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos aprobados.

f) El resto de funciones relativas a la fe pública y al asesoramiento legal preceptivo, reconocidas a los funcionarios de administración local con habilitación estatal.

g) Cuantas otras facultades sean conferidas por los órganos de gobierno de la Mancomunidad.

En caso de que este cargo no se pueda proveer en la forma prevista en el párrafo anterior, se optará por alguna de las formas previstas en la normativa de función pública.

*Artículo 18. Intervención.*

Será designado Interventor-Tesorero, con las atribuciones propias de tales cargos, un funcionario con habilitación de carácter estatal de alguno de los municipios que integran la Mancomunidad.

Corresponde al Interventor Tesorero el control y la fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria y la jefatura de la contabilidad, tesorería y recaudación de la Mancomunidad.

En caso de que este cargo no se pueda proveer en la forma prevista en el párrafo anterior, se optará por alguna de las formas previstas en la normativa de función pública.

La certificación de descubierto emitida por el Interventor servirá para el cumplimiento del requisito fijado en el art. 15.2, párrafo 2.º de la Norma Foral 6/2007, de Entidades de Carácter Supramunicipal.

## CAPITULO V

## SERVICIO DE GESTION DE RESIDUOS

*Artículo 19. Principios inspiradores del servicio.*

El servicio de gestión de residuos se regirá por los principios que determina la Directiva 2008/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 19 de noviembre de 2008.

En particular, se considerará la aplicación estricta del principio determinado en el art. 14 de la Directiva de que «quien contamina, paga» por lo que la Mancomunidad aplicará criterios de discriminación positiva a favor de los usuarios que acrediten mayor esfuerzo en el reciclaje y recuperación, penalizando a aquellos que generen más fracción resto.

*20. artikulua. Hondakinak kudeatzeko sistemak.*

Mankomunitateko udalek askatasun guztia dute egokien irizten duten bilketa-sistema hautatzeko. Udalen batek Mankomunitateko udalen gehiengoak erabiltzen ez duen sistemaren bat ezarri nahi badu, horren berri eman beharko dio Mankomunitateari.

Eskaera egin ondoren, Mankomunitateak sistema hori ezartzeak dakartzan kostuak kalkulatuko ditu. Horrez gain, udal horrek hartutako erabakiak Mankomunitateak indarrean dituen zerbitzuen kudeaketa-kontratuetan suntsiarazpen partzialik edo aldaketarik eraginez gero, horien kostuen likidazioa ere kalkulatuko du, kostu horiek txikiagotu edo ekidin ahal izateko.

*21. artikulua. Kostuen egozpena.*

Mankomunitatean bilketa-sistema bat baino gehiago izanez gero, aurreko artikuluan ezarritakoa betez, udalek egin beharreko ekarpenak kalkulatzean, kontuan izango da bakoitzak erabiltzen duen bilketa-sistema, modu horretara, udal bakoitzak erabiltzen duen sistemari dagozkion gastuak hartuko baititu beregain.

Kasu horretan, udal bakoitzari egotziko zaizkio hautatu duen bilketa-sistemaren kudeaketarako Mankomunitateak egin behar izandako kontratazioak eta gastuak. Udal batek baino gehiagok sistema bera hautatuz gero, gastu horiek udal horien artean zatituko dira, artikulu honen azken paragrafoan ezarritako irizpidea betez.

Halaber, udal bakoitzak egin beharreko diru-ekarpenak murriztuko egingo dira, baldin eta bilketa-sistema bakoitzari dagokion gaikako zabor-bilketaren hobari-sistemari esker, Mankomunitateak lortutako diru-sarrera gehigarriak. Diru-sarrera horiek ere, artikulu honen azken paragrafoan ezarritako irizpidea betez banatuko dira.

Bilketa-sistema bakoitzaren diru-sarrerak eta gastuak sistema hori erabiltzen duten Mankomunitateko udalen artean banatzeko orduan, kontuan izango da udalerri bakoitzak sortzen duen gainerako zatia. Horretarako, Mankomunitateak udalerri bakoitzak sortutako gainerako zatia bereizi ahal izateko mekanismoak ezarriko ditu bilketa-sistemetan. Mekanismo horiek bizilaguneko sarrera- eta gastu-banaketa ezarri arte izango dira indarrean.

## VI. KAPITULUA

## EKONOMIA-ARAUBIDEA

*22. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren III. tituluan ezarritakoaren eta Foru Arau hori garatzen duten xedapenen arabera, estatutu hauetan aurreikusi diren baliabideek osatuko dute Mankomunitateko ogasuna.

*23. artikulua. Ekonomia- eta finantza-baliabideak.*

Mankomunitateak ondoko ekonomia- eta finantza-baliabide hauek izan ditzake:

a) Mankomunitatea osatzen duten toki-erakundeek egindako ohiko ekarpenak.

b) Bere ondaretik eta zuzenbide pribatuko gainerako baliabideetatik datozen diru-sarrerak.

c) Diru-laguntzak.

d) Kreditu-eragiketengatiko diru-sarrerak.

e) Bere eskumen-esparruko isun eta zigorrengatiko diru-sarrerak.

f) Zuzenbide publikoko beste prestazio batzuk.

*Artículo 20. Sistemas de gestión de residuos.*

Los Ayuntamientos de la Mancomunidad disponen de libertad para escoger el sistema de recogida que tengan por conveniente. A tal efecto, en caso de que alguno de ellos decida implantar un sistema alternativo al que la mayoría de la Mancomunidad se haya adherido, deberá notificarlo a la Mancomunidad.

Hecha la solicitud, la Mancomunidad calculará el coste de la implantación del sistema, así como la liquidación de los costes derivados de resoluciones parciales o modificaciones de los contratos de gestión vigentes de los diferentes servicios de la Mancomunidad que se vean afectados por la decisión municipal, procurando minimizar o evitar estos costes.

*Artículo 21. Imputación de costes.*

Si en la Mancomunidad convivieran diferentes sistemas de recogida, en aplicación de la previsión del artículo precedente, las aportaciones de los Ayuntamientos se calcularán con el objetivo de repercutir a cada Ayuntamiento exclusivamente el coste que les correspondería en función del sistema de recogida que cada uno aplique.

En este caso, se imputarán a las aportaciones de cada Ayuntamiento los costes de las contrataciones realizadas y los gastos incurridos por la Mancomunidad para la gestión del sistema que haya escogido, repartiendo el coste total de dichas contrataciones entre todos los Ayuntamientos que hayan optado por dicho sistema con arreglo al criterio determinado en el párrafo final del presente artículo.

Asimismo, se reducirán de las aportaciones a realizar por cada Ayuntamiento los ingresos obtenidos por la Mancomunidad derivados de los sistemas bonificados de recogida selectiva imputables a su sistema de recogida, repartidos nuevamente con arreglo al criterio determinado en el párrafo siguiente.

El reparto de los ingresos y gastos de cada sistema de recogida entre los Ayuntamientos mancomunados que participen de él, se realizará proporcionalmente, en función del volumen de fracción resto generado por cada municipio. A tal efecto, la Mancomunidad implantará en sus sistemas de recogida mecanismos que permitan discriminar la fracción resto generada por cada municipio, aplicándose hasta el momento en que se implanten un reparto de ingresos y gastos por habitante.

## CAPÍTULO VI

## RÉGIMEN ECONÓMICO

*Artículo 22. Normativa aplicable.*

La Hacienda de la Mancomunidad estará constituida, en el marco de lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, en especial su título III, y disposiciones que la desarrollen, por los recursos previstos en los presentes Estatutos.

*Artículo 23. Recursos económico-financieros.*

Los recursos económico-financieros de la Mancomunidad podrán ser los siguientes:

a) Aportaciones ordinarias de las entidades locales integrantes en la Mancomunidad.

b) Ingresos procedentes de su patrimonio y demás de derecho privado.

c) Las subvenciones.

d) El producto de las operaciones de crédito.

e) El producto de multas y sanciones en el ámbito de sus competencias.

f) Demás prestaciones de derecho público.

*24. artikulua. Mankomunitatearen finantziazioa.*

1. Mankomunitateko kide diren erakundeek Mankomunitateak funtzionatzeko beharrezkoak diren diru-ekarpenak egingo dituzte. Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietako biztanleetatik udalerri bakoitzak zenbat eduki, hainbat ordaindu beharko dute udalerriek. Zenbatespen hori egiteko, Estatistikako Institutu Nazionalak azkena argitaratu dituen populazio-zifra ofizialak hartuko dira oinarri urtero.

Mankomunitateko kide diren udalek, beren aldetik, Mankomunitateari ordainduko dizkioten zenbatekoak izendatu beharko dituzte aurrekontuetan. Ekarpen horiek, bidenabar, Mankomunitateko Aurrekontuak Betetzeko Arauan ezarritako aldizkakotasunaz egin beharko dira. Ordainketa egin aurretik, edonola ere, dagokion faktura egingo die Mankomunitateak udalei.Udalaz Gaindiko Erakundeei buruzko 6/2007 Foru Arauko 15.1 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, estatutuetako ordainketa-epetzat hartuko dira estatutu hauetan ezarritako prozedurarekin bat etorriz onartu den urteko aurrekontuan zehaztutako epeak.

Ekarpen horiek derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketatzat hartuko dira, eta izan beharreko ondorio guztiak izango dituzte. Mankomunitateko kide diren udalerriek arauak hausten badituzte, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalaz Gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauko 15. artikulua aplikatuko da.

2. Udalek jasotzen dituzten zerbitzuengatik egin beharreko ekarpenak homogeneoak izango dira Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztientzat, baina, hondakinen kudeaketari dagokionez, V. kapituluan ezarritako arauak beteko dira.

*25. artikulua. Aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeetako aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan eta hura garatzen duten xedapenetan aurrekontuei eta gastu publikoari buruz jasotako arauak aplikatuko zaizkio Mankomunitateari.

Mankomunitatea, halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen mende egongo da, eta araubide horretan ezarritako baldintzen arabera kontrolatu eta fiskalizatu beharko ditu bai kontuak, bai kudeaketa ekonomikoa.

## VII. KAPITULUA

## MANKOMUNITATEA HANDITZEA, BEREIZTEA ETA DESEGITEA

*26. artikulua. Mankomunitate handitzea.*

Prozedura honi jarraitu beharko zaio Mankomunitateko kide ez den udalerri bat Mankomunitatean sartzeko:

1) Erakunde interesdunaren aurretiazko erabakia, Udalbatzak gehiengo osoz hartua.

2) Lehendakariak, Mankomunitatearen izenean, eskaera bideragarria den edo ez azalduko du. Hala badagokio, lehendakariak udalerri berria Mankomunitatean zer baldintzatan sartuko den adieraziko du. Ondoren, egoki deritzon erabakia hartuko du Batzar Nagusiak, bertaratutakoen gehiengoz.

3) Mankomunitatean udalerria sartzea onartu bada, udalerri horrek estatutuak onartu beharko ditu, eta Mankomunitateko talde-organoetan bere ordezkari izango dena izendatu beharko du.

*Artículo 24. Financiación de la Mancomunidad.*

1. Las aportaciones necesarias para el funcionamiento de la Mancomunidad serán abonadas por los entes mancomunados, conforme al número de habitantes de cada uno con respecto al número de habitantes total de los municipios, que se calculará con las últimas cifras oficiales de población publicadas por el Instituto Nacional de Estadística con carácter anual.

Para tal efecto, los ayuntamientos mancomunados deberán consignar en sus presupuestos las aportaciones que deban realizar a la misma que se efectuarán con la periodicidad establecida en la Norma de Ejecución Presupuestaria de la Mancomunidad, tras la correspondiente factura emitida por aquélla. En cualquier caso, y a los efectos de lo determinado en el art. 15.1 de la Normas Foral 6/2007 de Entidades de Carácter Supramunicipal, se estimarán plazos estatutarios de pago aquellos que se determinen en el presupuesto anual aprobado con arreglo al procedimiento que fijan los presente Estatutos.

Dichas aportaciones tendrán a todos los efectos la consideración de pagos obligatorios y de carácter preferente. En lo que a incumplimientos por parte de los municipios integrantes se refiere, se estará a lo regulado por el precepto 15 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Las aportaciones por la prestación de servicios a los municipios mancomunados serán homogéneas en todos los municipios que integran la Mancomunidad, salvo en lo referente al servicio de gestión de residuos, al que se aplicarán las reglas para el cálculo de las aportaciones fijadas en el Capítulo V.

*Artículo 25. Régimen presupuestario y contable.*

Serán aplicables a la Mancomunidad las normas sobre presupuestos y gasto público contenidas en la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y disposiciones que la desarrollen.

Estará sometida igualmente al régimen de contabilidad pública y al control y fiscalización de sus cuentas y de su gestión económica en los términos establecidos en la citada normativa.

## CAPÍTULO VII

## AMPLIACIÓN, SEPARACIÓN Y DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD

*Artículo 26. Ampliación de la Mancomunidad.*

Para la aceptación de un municipio no integrado en la Mancomunidad en el seno de la misma, será necesario seguir el siguiente procedimiento:

1) Acuerdo previo de la entidad interesada, adoptado por la mayoría absoluta del Pleno.

2) La Mancomunidad, a través de la Presidencia, informará sobre la viabilidad o no de la solicitud, señalando en aquel caso las condiciones de incorporación, y la Asamblea General acordará lo que proceda, con la mayoría de los presentes.

3) Notificado el acuerdo positivo a la adhesión, en su caso, el municipio interesado deberá acordar la aprobación de los Estatutos y designar su representación en los órganos colegiados de la Mancomunidad.

4) Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoak egin ondoren, estatutuak aldatuko dira, 30. artikuluko hirugarren, laugarren eta bosgarren lerrokadetan adierazitako prozedura betez.

*27. artikulua. Mankomunitatetik bereiztea.*

Udalerri batek Mankomunitateko kide izateari boluntarioki utzi nahi badio, Mankomunitatea uzteko erabakia baliozkoa den moduan hartu beharko du, eta erabaki horren berri eman beharko dio Mankomunitateari. Mankomunitatea jakinaren gainean jarri ondoren, udalerria Mankomunitatetik kanpo geratuko da, eta bi erakundeen arteko harreman ekonomikoak likidatuko dira honako prozedura honi jarraikiz:

1. Mankomunitatearen eta udalerriaren arteko egoera ekonomikoa erregularizatuko da.

Mankomunitatetik bereizten den erakundeari egoki dakiokeen soberakinari kendu egingo zaizkio Mankomunitateak lortutako diru-laguntzak eta helburu horretarako diru-sarrera guztiak.

2. Mankomunitatetik bereizi nahi den udalerriak ordaindu egin beharko ditu hura bereizteagatik sortzen diren gastu guztiak. Udalerri horrek, halaber, Mankomunitateak hartu duen zor pasibotik bere partea ordaindu beharko du. Batzar Nagusiak, bere aldetik, likidazio-kontua onetsi beharko du, Estatutu hauetako 11. artikuluko 2. atalean ezarritako gehiengoz hartutako erabakiaren bidez.

3. Likidazioari eta bereizte-baldintzei buruzko eta estatutuak aldatzeko proposamenak ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Batzar Nagusiak onetsi beharko ditu proposamen horiek, Estatutu hauetako 11. artikuluko 2. atalean ezarritako gehiengoz onartutako erabakiaren bidez.

b) Erabaki hori jendaurrean izango da, hilabetez, Mankomunitateko kide diren udaletako iragarki-oholetan, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Epe hori amaitzean, Foru Aldundiak hilabeteko epea izango du txostena egiteko. Denbora-tarte horretan ez badu txostenik egin, erabakiaren alde dagoela joko da.

c) Mankomunitatea osatzen duten udal gehienek berretsi beharko dute bereiztea. Horretarako, osoko erabakia hartu beharko dute, Mankomunitatea eratzeko beharrezkoa den quorumaz.

d) Zuzendutako estatutuen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Kideetako bat bereiztearen eraginez ezin izango da Mankomunitatearen ohiko jarduna asaldatu.

Mankomunitateari kalkulatutako likidazioaren saldoa ordaintzen dion unean bereiziko dira Mankomunitatetik bereizteko eskaera egin duten udalak. Likidazioaren saldoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira indarrean dagoen legedian ezarritako irizpideak eta Mankomunitatearekiko aldez aurreko konpromisoak, bereizketaren ondorioz likidatu beharrekoak.

*28. artikulua. Mankomunitatea desegitea.*

Honako arrazoi hauengatik desegin daiteke Mankomunitatea:

1) Ezarritako xedeak bete ezinagatik.

2) Bat izan ezik gainerako beste kide guztiak Mankomunitatetik bereizi izanagatik.

4) Formalizado lo previsto en los anteriores párrafos, se procederá a la modificación estatutaria correspondiente, siguiendo el procedimiento establecido en los párrafos tercero, cuarto y quinto del artículo 30.

*Artículo 27. Separación de la Mancomunidad.*

Para que un municipio deje de formar parte voluntariamente de la Mancomunidad, deberá aquel adoptar válidamente la decisión y comunicarla a la Mancomunidad. Tras la comunicación se estimará separado el municipio y se procederá a liquidar las relaciones económicas entre ambas entidades con arreglo al siguiente procedimiento:

1. Se regularizará la situación económica entre la Mancomunidad y el municipio.

Las subvenciones y cuantos ingresos de naturaleza finalista se hubieran obtenido por la Mancomunidad serán deducidas del remanente que, en su caso, correspondiera al ente que se separa.

2. El municipio que se separa abonará los gastos que se originen con motivo de la separación, así como la parte del pasivo contraído por la Mancomunidad de su cargo. Se requerirá la aprobación de la cuenta de liquidación por la Asamblea General, mediante acuerdo adoptado por la mayoría requerida en el apartado 2 del art. 11 de los presentes Estatutos.

3. La propuesta de liquidación y condiciones de separación, así como la de la correspondiente modificación de estatutos requerirá el cumplimiento de las siguientes reglas:

a) Aprobación por la Asamblea General mediante acuerdo adoptado por la mayoría requerida en el apartado 2 del art. 11 de los presentes Estatutos.

b) Información pública del acuerdo por plazo de un mes mediante publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios de los Ayuntamientos mancomunados. Tras dicho trámite, sometimiento a informe de la Diputación Foral por idéntico plazo, transcurrido el cual sin haberse emitido, se entenderá favorable.

c) Ratificación por la mayoría de los Ayuntamientos mancomunados mediante acuerdo plenario adoptado con el quórum exigido para la constitución de la mancomunidad.

d) Publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del texto íntegro de los estatutos modificados.

La separación de alguno de los miembros se llevará a cabo sin perturbar la marcha normal de la Mancomunidad.

En particular, se producirá la separación efectiva del Ayuntamiento que haya solicitado su segregación en el momento en que abone a la Mancomunidad el saldo de liquidación que se calcule, aplicando los criterios que resulten de la normativa en vigor y de los compromisos previos de la Mancomunidad que hubieren de liquidarse como consecuencia de la separación.

*Artículo 28. Disolución de la Mancomunidad.*

Las causas de disolución de la Mancomunidad serán las siguientes:

1) Imposibilidad del cumplimiento de los fines establecidos.

2) Separación de todos menos uno de los miembros.

3) Legezko xedapenagatik edo herri-onuraren kontrako gertakariengatik.

4) Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoak hartutako erabakiagatik, 30. artikuluko 3, 4, eta 5 paragrafoetan estatutuak aldatzeko ezarri diren prozedurazko arauak betez.

*29. artikulua. Likidazio-prozedura.*

1. Mankomunitatea desegiten bada, Mankomunitatearen likidazio-erakunde izaerak juridikoa izaten jarraituko du, Batzar Nagusiak Mankomunitatearen ondarea likidatzea eta banatzea erabaki arte.

2. Likidazio-prozedura honako hau izango da:

a) Batzar Nagusiak Mankomunitatea desegitea erabakiko du formalki, eta batzorde likidatzailea izendatuko du.

b) Batzorde horrek Mankomunitatearen ondasunen eta eskubideen inbentarioa egingo du. Inbentario horretan, honako hauek jasoko dira: Mankomunitatearen baliabideak, kargak, zorrak eta langileak. Ondasun horiek guztiak banatzeko orduan, kontuan hartuko dira Mankomunitateko kide izan diren udalerrietan azken bost urteetan batez beste izan diren biztanleak eta udalerrien ekarpenak.

c) Inbentarioa osatu ondoren, ondasunak, eskubideak, eta zorrak –Mankomunitateko langileenak barne– banatzeko modua proposatuko dio batzorde likidatzaileak Batzar Nagusiari. Horretarako, jarduera-egutegia zehaztuko da.

d) Likidazio-proposamenak Batzar Nagusiaren aldeko botoa izan behar du, hau da, Batzar Nagusian bildutakoek Estatutu hauetako 11. artikuluko 2. atalean ezarritako gehiengoz onartu beharko dute likidazio-proposamena.

e) Likidazio-proposamena jendaurrean izango da, 30.3. artikuluan adierazitako baldintzetan.

f) Mankomunitateko kide diren udal gehienek proposamen hori onartu beharko dute. Horretarako, kideen legezko gehiengo osoz eta osoko erabaki bidez onartu beharko dute proposamena.

g) Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da likidazioa.

## VIII. KAPITULUA

## ESTATUTUAK ALDATZEA

*30. artikulua. Estatutuak aldatzea.*

1. Estatutuak aldatzeko, honako prozedura hau beteko da:

a) Lehendakariak edo Batzar Nagusiaren gutxienez heren batek proposatu beharko du estatutuak aldatzea.

b) Batzar Orokorrak estatutuko hauetako 11. artikuluko 4. atalean ezarritako aho batezko irizpidea betez onartu behar du estatutuen aldaketa, hau da, Mankomunitateko Batzar Orokorra osatzen duten ordezkari guztiek onartu behar dute proposamena.

c) Azken erabaki hori jendaurrean izango da hilabetez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta eta Mankomunitateko kide diren udaletako iragarki-oholetan jarrita. Epe hori amaituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuak aldatzeari buruzko txostena egin beharko du hilabeteko epean. Epe hori amaitu eta Aldundiak ez badu auziaren inguruko txostenik egin, Aldundia aldaketaren alde dagoela joko da.

3) Disposición legal o concurrencia de circunstancias contrarias al interés público.

4) Acuerdo de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General y cumplimiento de las reglas procedimentales establecidas para la modificación de estatutos en los puntos 3, 4 y 5 del artículo 30.

*Artículo 29. Procedimiento de liquidación.*

1. En el caso de disolución de la Mancomunidad, ésta mantendrá su personalidad jurídica como órgano de liquidación hasta que la Asamblea General adopte el acuerdo de liquidación y distribución de su patrimonio.

2. El procedimiento a seguir será el siguiente:

a) La Asamblea General acordará formalmente la disolución y nombrará una comisión liquidadora.

b) Dicha Comisión efectuará un inventario de los bienes y derechos de la Mancomunidad, señalando sus recursos, cargas y débitos, y enumerará al personal al servicio de la Mancomunidad. En la distribución que corresponda hacer se tomará en consideración la población media durante la permanencia de los miembros de la Mancomunidad, durante los últimos cinco años y las aportaciones realizadas por los municipios integrantes.

c) Realizado el inventario, la Comisión liquidadora propondrá a la Asamblea General la distribución e integración de los bienes, derechos y débitos, incluidos los del personal al servicio de la Mancomunidad, entre los municipios integrantes. A tal efecto, determinará un calendario de actuaciones.

d) La propuesta de liquidación requerirá el voto favorable de la Asamblea General, adoptado por la mayoría requerida en el apartado 2 del art. 11 de los presentes Estatutos.

e) Se garantizará el trámite de información pública de la propuesta de liquidación en los términos establecidos en el artículo 30.3.

f) La mayoría de los ayuntamientos mancomunados habrá de aprobar dicha propuesta mediante acuerdo plenario adoptado con la mayoría absoluta legal de miembros.

g) La liquidación se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

## CAPÍTULO VIII:

## MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS

*Artículo 30. Modificación de los Estatutos.*

1. La modificación de los Estatutos se ajustará al siguiente procedimiento:

a) La iniciativa corresponderá a la Presidencia o al menos a una tercera parte de la Asamblea General.

b) Aprobación por la Asamblea General mediante acuerdo adoptado con el criterio de unanimidad requerido en el apartado 4 del art. 11 de los presentes Estatutos, es decir, el voto favorable de todos los representantes que conforman la Asamblea General de la Mancomunidad.

c) Información pública del acuerdo por plazo de un mes mediante publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios de los ayuntamientos integrantes, tras la cual la modificación de los estatutos será sometida a informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa por idéntico plazo. Transcurrido dicho plazo sin haberse emitido informe por la Diputación, se entenderá favorable.

d) Mankomunitateko kide diren udal gehienek onartu beharko dute proposamena. Horretarako, kideen legezko gehiengo osoz eta osoko erabaki bidez onartu beharko dute proposamena. Prozeduraren fase horretan, ezin izango da bozkatutako testuan aldaketarik egin.

e) Zuzendutako estatutuen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, aldaketak eta guzti.

2. Batzar Nagusiak, erabakiak hartzeko, Mankomunitateko udal guztien adostasuna lortu beharko du, erabakiak Mankomunitatearen xedea zabaltzea dakarrenean.

*Lehen xedapen gehigarria. Lapatx Zabortegiko lurzoruaren araudia.*

Urola Erdiko Mankomunitatea eta Azpeitiko Udala ados agertu dira zabortegiko lurzorua (Azpeitiko Udalaren jabetza) Urola Erdiko Mankomunitatera atxikitzeko, Mankomunitateak egingo dituen zerbitzu publikoko lanetarako. Atxikitzea kostubidezkoa da; 2009an egindako kalkuluen arabera, urteko kanona 158.482 €-koa da. Kanon hori zabortegia ixten den urtetik aurrera ordainduko da eta kopuru hori urteko KPIak izandako aldakuntzaren arabera eguneratuko da, 2010 urteko ekitalditik aurrera.

Zabortegia ixten den egunera arte, Azpeitiko Udalak ordainsaria jasotzen jarraituko du, Mankomunitatearekin adostutakoaren arabera. Mankomunitatearen sozietate publikoak, bere zerbitzu tekniko eta bitartekoak, ordainduko du hori; hain zuzen ere, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, s.a.k.

Halaber, atxikitze hori aldi baterakoa izango da; eta agintari eskudunak zabortegia itxi ondoko mantentze-aldia bukatu dela erabakitzen duen urtean amaituko da. Epe hori ez da izango, inola ere, 30 urte baino laburragoa, ixten den egunetik zenbatzen hasita.

*Bigarren xedapen gehigarria. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa.*

Estatutu hauek Mankomunitatean gainerako hondakinak biltzeko kudeaketa integrala aurreikusten dutenez, Azpeitiko Udalak, Estatutu hauek onartu bitartean zerbitzua egunero ematen jarraitu duenak, konpromisoa hartzen du kudeaketa horretarako Urola Erdiko Mankomunitateari beharrezko baliabideak atxikitzeko. Mankomunitatea arduratuko da kostu hori ordaintzeaz, Mankomunitateko Batzarrak erabakitako baldintzetan; baldintza horiek, hain zuzen, 2010eko uztailaren 9ko akordio bidez erabaki dira.

*Lehen xedapen iragankorra.*

2011n tokiko udalbatzak berritu arte, lehendakari eta lehendakariorde kargudunek eta egungo Zuzendaritza Batzordeak beren karguei eutsiko diete. Udalbatzak berritu bitartean, beraz, kargu horiek hartu zituzten egunera arte indarrean ziren estatutuak aplikatuko dira.

*Bigarren xedapen iragankorra.*

Azpeitiko Udalak, bere aldetik, hiri-hondakinak jasotzeko zerbitzua eskaintzen jarraituko du 2010eko abenduaren 31ra arte.

*Azken xedapena.*

Estatutu hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunean sartuko dira indarrean, legez izapidetu ondotik, III, VII eta VIII ataletan ezarritakoa izan ezik, Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoaren arabera indarrean sartuko baita.

d) Aprobación por la mayoría de los ayuntamientos mancomunados mediante acuerdo plenario adoptado con la mayoría absoluta legal de miembros de las respectivas corporaciones. En esta fase del procedimiento, el texto sometido a votación no podrá ser sometido a modificaciones.

e) Publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del texto íntegro de los estatutos con sus modificaciones.

2. Los acuerdos a adoptar por la Asamblea General requerirán de la unanimidad de los ayuntamientos mancomunados cuando suponga una ampliación del objeto de la Mancomunidad.

*Disposición adicional primera. Régimen del suelo del vertedero de Lapatx.*

La Mancomunidad de Urola Erdia y el Ayuntamiento de Azpeitia muestran su conformidad a la adscripción del suelo del vertedero, propiedad del Ayuntamiento de Azpeitia, a la Mancomunidad de Urola Erdia y su afectación al servicio público desarrollado por ésta. Esta adscripción tiene carácter oneroso, fijándose el canon de la misma, según los cálculos realizados en el año 2009, en 158.482 € anuales. El canon será abonado a partir del año del cierre del vertedero, y su cifra se actualizará conforme a las variaciones experimentadas por el IPC anual, a partir del ejercicio de 2010.

Hasta la fecha de cierre del vertedero, el Ayuntamiento de Azpeitia continuará percibiendo la remuneración conforme a los acuerdos alcanzados con esta Mancomunidad, a través de su sociedad pública, servicio técnico y medio propio, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.

Esta adscripción tiene asimismo carácter temporal, concluyendo el año en que se acuerde por la autoridad competente la conclusión del periodo de mantenimiento post-clausura del vertedero, periodo que en ningún caso será inferior a 30 años contados desde la fecha del cierre.

*Disposición adicional segunda. Compromiso de adscripción de medios.*

En la medida en que los presentes Estatutos prevén la gestión integral de la recogida de residuos en baja del conjunto de la Mancomunidad, el Ayuntamiento de Azpeitia, que ha venido prestando el servicio hasta el día de la aprobación de estos Estatutos de forma directa, se obliga a adscribir los medios necesarios para la señalada gestión a la Mancomunidad de Urola Erdia, que se hará cargo de su coste en los términos acordados por la Asamblea de la Mancomunidad, y que se han adoptado mediante acuerdo de 9 de julio de 2010.

*Disposición transitoria primera.*

Los miembros que actualmente ejercen los cargos de Presidente y Vicepresidente, así como la Junta Rectora actualmente designada, continuarán en sus cargos hasta la renovación de las corporaciones locales en 2.011, aplicándose hasta dicha fecha los estatutos vigentes hasta la fecha de aprobación de los presentes.

*Disposición transitoria segunda.*

El Ayuntamiento de Azpeitia continuará prestando el servicio de recogida de residuos urbanos, hasta el 31 de diciembre de 2010.

*Disposición final.*

Los presentes Estatutos entrarán en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, tras haberse tramitado en legal forma, a excepción de lo regulado en los Capítulos III, VII y VIII, que adquirirán vigencia conforme a lo previsto en la Disposición Transitoria Primera.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari estatutu hauen lagin bat bidaliko zaio, Gipuzkoako Toki Erakundeen Foru Erregistroan jaso ditzan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Estatuko Administrazioari egoki diren jakinarazpenak egin diezazkion.

Asimismo, se remitirán a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su inscripción en el Registro Foral de Entidades Locales de Gipuzkoa y realización de las comunicaciones oportunas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la del Estado.